



Pieter Bruegel zaharra, Babelgo dorrea, 1563

Irudiak des-tolestea, zabaltzea: idazketa

Aurora Fernández Polanco

La perception elle même fût déjà une expérience de trace. Autrement dit que dans l'invention la plus sauvage, dans la parole auparavant la plus imprévisible, imprudente il y y avait déjà le compte tenu d'une autre trace.

J. Derrida, *France cultureen*, 1994ko abenduaren 28a.

Aro honetarako idazketa bat da egokia: «nahikoa da manipulatzearekin [...] (trikimailuak, esku-jokoak, amarruak), moztu, itsatsi, mugimenduan jarri edo zatikatzearekin, ezkutaketarako piezak mugituz eta troporako bizitasun bikainaren bitartez».

J. Derrida. *La tarjeta postal. De Sócrates a Freud y más allá* (Postalak. Sokratesengandik Freudengainano eta haratago-ren itzulpena).

Badirudi guztiok bat gatozela irudiak oso-osorik gure esanetara ditugula pentsatzean. Handitu, txikitu, editatu egiten ditugu, gif bilakatzeko ditugu; luzaz gainditzen dituzte detaile eta txorakeria hauek muntaia «herriarentzako arma» (Didi-Huberman, 2014) bezala hedatu zen sasoiko Goi Modernotasunaren teknikak. Egun, afektuzko gailu bezala gero eta gehiago erabiltzen ditugun sasoiak, jolas armak dirudite. Telefono mugikorrek eta sare sozialetan horiek bilbatzen ditugunak ikustea besterik ez dago. M-15eko komunitate-aldarri haiek pentsa arazi ziguten irudi zaharrak (errepresentazio hutsa besterik ez dutenak erreferentzetat) XX. mendeko urekin batera kalean behera joatera kondenatuta zeudela. Eta ez bakarrik orain irudien %99 makinek eta makinentzat eginda daudelako, baizik eta, Hito Steyerlek dioenez, dokumentalismo *post-gizatiarrean* elkarlanean ere badabilzalako.

Plastikozkoak, baina armak azken finean. Pozoitsuak ere badaude, bai beraien ekintzan (*image act*, teoria batek dioenez) hain boteretsu irauten dutelako, zein maltzur erreala denarekin duten zenbait loturatan. Edonola ere, dagoeneko ez du zentzurik gizakion eskumenean dagoen artxibo batean gordetako objektu bezala aintzakotzat hartzeak, aurretikoa eta originala den horren errepresentazio deposituaren zentzuan. Kanporik gabe ez dagoelako artxiborik eta, gainera, honezkero ez dakigulako non hasten diren beraiek eta non amaitzen garen gu. Michel Serresek (2008) errugbi baloia zelaian harremanen marrazkigiletzat (*traceur de relations*) hartzen duen bezala, irudia objektu-gisako gizarte loturen egile. Edo, agian, ez du merezi subjektu eta objektuez aritzea, egile, edo aktantez hitz egitea baizik, elkarte eta egoerak eratzen dituzten gizaki eta ez gizakien hibridazioez.

Ziur Iván Gómez ados egongo litzatekeela. Horregatik du lehenago «fantasiatzeko»tzat irakurriko litzatekeen proposamena, idazketaren ekintza aktiboa aldarrikatzeko ausardia; ordea, niri iruditzen zait une honetan proposamen-indarra duela, *performakorra*, irudimenaren nolakotasun onena garatzen baitu: heterogeneoa dena, gauzen arteko harreman intimo eta ikusezinak biltzen dituena, munduak iragarri eta posible egiten dituena; jakin-gabe-hitz-egitearen indarra, (Deleuze filosofoak esango lukeen bezala) geldotutako hizkuntza batean idaztean, beti onuragarria dena. Ez-jakiteak ez baitakar ezjakintasun ausarta, ez itxurakeria, ez eta prestakuntza, ikasketa edo pentsamendu eza adierazten. Irudiek, ez dakiena diona ez da eruditu bat, egia da, ezta gaien aditua ere. Ez dago diziplinatuta, ikusizko nolabaiteko ez-jakintasunarekin lan egiteko prest dago, alaitasun eta desorduetako olerkigintzako artearekin, denbora eta espazioak desordenatzen baititu. Itxuren gainazalean eta handik barrena bere baitan eratu eta ibili dabilen idazketa. Aipatu zuen Nietzsche-k (2007), Platonen kontra: estiloa hobetzen duenak, pentsamendua hobetzen du, eta are gehiago esan zuen: begiak itxi eta zabaltzearekin hau antzemateko gai ez denak, inoiz ez du ulertuko.

Ikusizko entsegua

Adornoren *Der Essay als Form* (Entsegua forma bezala) eta Godarden «*formes qui pensent*» (pentsatzen duten formak) ideien artean, benjamindar tradizio osoa hartzen duen arku zabaltzen da. Eta Susan Buck-Morssek egiten dituen ariketa «libreetan» edo Didi-Hubermanen muntaia eraldarrikapen epistemikoaren ekinean arku tenkatu egiten da berdinki tratatzen dituen Walter Benjamin, Aby Warburg, Eisenstein, Georges Batailleren Documentsak edo Harun Farocki bera. Nahiz eta Hito Steyerlek (2011) egun entsegu mota hau (irekia, zatikatua, collage/muntaia oinarritua) subjektibotasun postfordistarekiko eredu bikaina izan ote zitekeen galdera mahai-gaineratu duen, eta ezagutzaren (gaur egungo) ekoizpenerako baldintza materialen irtenbidea bilatzen saiatzen den arren, badakigu Farockirengandik jarauntsi duela irudidun pentsamendurekiko eta artikulazioaren tradizio modernoarekiko zaletasuna. Iván Gómezek María Ruidorekin muntatzaile gisa egin du lan eta hark ere kontuan izaten ditu belaunaldi oso zabal batek oraindik partekatzen dituen erreferentzia hauek (bestela, hor dugu Basilio Martín Patinorekiko mirespen kutuna duen María Cañas). Guztiek aztertu dute muntaia dialektikoa feminismotik. Mozketa, horrela ulertuta, zinemagintzako gillotinarekin eliztatzen da. Erakusketa *displayaren* semantika ere atxiki zaio tradizio honi, non markoa bera, edo ertza, zabalik dagoen aukera bezala balioesten den zirriketua, ikusketaren disjuntzioa, gerta dadin.

Testua/ehuna

Testuala ehun bezala punta-puntakoa izan zen Roland Barthes eta estrukturalismo barreiatuak autore-jeinuari eta haren kide fidelegiari, edo, are zehatzago, haren alabari: obrari, eskaini zizkion hiletu guztietan. Ehun-metaphora oso erabilgarria izan zen idazketa subjektua oihalaren bilbadurako hari bat gehiago bezala ulertzeko, sakontasun erromantiko ilunen herentzia saihesteko eta *l'écriture* barne-ahotsaren tresna hutsa izatetik askatzeko. Sasoirako (aurretiaz) pentsatuta zegoena kanporatu ordez, testu-ehun-*patchworka* metaphora bikaina zen gainazala idazkiaren (beraren) desplazamendurako leku bezala aldarrikatzeko. Eremu frantses honetan, baina deriba partikular batean, Iván Gómezen liburuak ezinbestez narama Derridaregana. Hark mintzairaren linealtasuna erotik apurtzen baitu (testuaren esan gura horretan) ehundutako estratueta jatzeko eta aurreiritzirik

gabe dauden eta ez dauden elementuen artean ehotakoa bezala ulertzeko. Nahiz eta *exordiuma*, 'oratoria diskurtso baten hasiera', 'ordior' aditzetik datorren, zeinak 'ehuna hastea' esan nahi duen, Derridak frogatu du dagoeneko ez duela abiapunturik ez funtsik ehuntzen hasi eta aldi berean autoritatezko diskurtsoa saihestea, ez baita bakarrik hitza bera berez idazketa dela, baizik eta ehundutakoaren (testuaren) teilakatzeari hainbestera dela, ezen ezin dugun bilbadura irazkitik bereizi: «filosofia-testuaz haraindi, ez dago ertz zuririk, birjirik, hutsik, baizik eta beste testu bat, erreferentzia muin ageririk gabea den indar ezberdintasuneko ehundua» (Derrida, 1998).

Iturburuak ekiditen saiatzeak ez du galdera saihesten: Nondik hasiko naiz idazten? Horregatik Ivánek, joko ironiko freudiar baten ondoren, jarraian garrantzitsuak XVI. mendeko Brueghelengana hodei artean saltoka. Sarrera-Babel honek, egokitasun osoz, gontz, zirrikitu eta sakondudun ukimen-ehunduradun testua aurkezten digu.

Idazketarekin Derridak egin zituen frogak (*collage*, muntaia eta iruzkin *parergonalak*), apeuz deitzen dio hariari, ertzen josketari. Idazteak mentatzea esan nahi du, badio *L'insémination* (Intseminazioa): «Mentuak, ertzak jostera itzultzea». Hemen guztiok sartzen gara, Derridak antzematen jakin zuen irekidura zuhurra da: feminismo kritikoen antzera, teoria poskolonialaren antzera edo *queer* teoriaren antzera.

«Idazketari dagokiona» aldarrikatzea, non edozein elementu esanguratsua den, era bat da pentsamendu kritikoen gordailu bakartzat genuen idazketa fonetikoaren ardatza desbideratu eta lekualdatzeko, benjamindar izendatu dugun tradizioarekiko ezberdina den zentzu batean. Egia da ez dagoela benjamindar tradizioan bezala argudiatu eta frogatzerik. Han agertu egiten bada, hemen erakutsi egiten da, hau da, azaldu egiten dela pentsatu nahi izaten dut. Hain zuzen ere, latindar *explicatio* hitzaren lehenengo esanahiaren zentzuan 'tolestuta zegoen eta ikusgarri ez zen hori destolestu edo zabaltzeko ekintza'. Hori bai, Iván Gómezen ikusizko entsegu honetan Deleuzekin (1989) frogatzen dugu «destolestea ez dela tolestearen kontrakoa, tolestura beste hurrengo tolestura bateraino eramatea baizik».

«Gehiago gastatzen du pobreak haritan aberatsak oihaletan baino»

Ikusizko entseguak *idazketa prozesutik* (hizki etzanez idatzita egon arren ez diot hipertestu deitu nahi) asko atera izan arren, ez dakit belaualdi hark, Barthesengandik hasi eta Derrida edo Hélène Cixousenganaino, -edo Spivak Derridaren itzultzaileak- Foucault, Deleuze eta Guattari tarteko direla, susmatu ote zituzten zituen aukerak. Itxaron beharra zegoen, munduaren digitalizazioak edo irudiaren ekonomia berriak errotik deslekuratu zitzen gailu mnemoniko zaharrek lotutako idazkerak eta ehunaren metaforak zabal zezan badaezpadako irudi galkorrek egin dako hari sarea. Orain banaketa-ekonomia berriak behin betiko aldarrikatzen dituen idazketa; baina arreta ere, dagoeneko, aurretiko ezagutza batera jotzeko ezinduta dago, ikasitako eta gordetako hartara, eta RAM memoriaren energia sinbolikoarekin destolestean da (Brea, 2009): adierazteko uanean ekoizteko ezagutza, norbere burua ezustean harrapatuz, etortzeko dauden egoera(k zehatza)k formulatu eta performatuz.

Ikusizko entsegu honek erronka gehigarria du. 2014.aren hasieran *e-fluxen* agertu zen «Proxy Politics: Signal and noisy» artikuluan Hito Steyerle (2014) zioen dagoeneko ezin dugula kamerak hartutako argazkien *indexikotasunean* sinistu. Sakelako telefonoa txikia da, zaborra funtsean, eta datuen erdia zarata da. Kamerak telefonoan edo sare sozialetan gordeta ditugun pinturak aztertzen ditu eta, horren arabera, inoiz existitu ez den irudi bat sortzen du, algoritmoak zuk ikusi nahi izango zenukeela

uste duenaren arabera. Argazki mota hau espekulatiboa eta erlazionala da.

Irudien estatusa dena delakoa ere, ikusizko entsegu digitalak -*idatzizkoari dagokiona*- bere objektutasunaren izaera galdu du, ez du usainik, ezin da ukitu, ez inprimatu, baina «sentsore» den heinean eragina du, dinamikoki aldatzen baita: elementuen kondentsazioa, tolestura, bilgarrien metaketa (Prestel, 2011).

Begi gora-behera batean hori antzemateko gai ez denak inoiz ez du ulertuko. Lortzen duenak, edonon dela ere, destolestea (*unfold* hitzak ingelesez *display* ere esan nahi du) ere lortuko du. Hau da, erakustea.

Bulegoari Iván Gómez ezagutzeko aukera eskertzen diot.

Erreferentziak

Brea, José Luis (2009). *Cultura RAM. Mutaciones de la cultura en la era de su distribución electrónica*. http://librosabiertos.org/bitstream/001/535/1/c_ram.pdf-tik berreskuratua

Derrida, Jacques (1998). *Márgenes de la filosofía* (p. 30). Madrid, Cátedra.

Deleuze, G (1989). *El pliegue. Leibniz y el Barroco* (p14). Barcelona, Paidós.

Didi-Huberman, Georges (2014). *Pueblos expuestos, pueblos figurantes*. Buenos Aires, Manantial.

Harlizius-Kluck, Ellen (2013ko urtarril-uztaila). *Hilos, bordes, flecos y nacimiento divino: Los textiles como pasaje a lo sobrenatural* (29. zenb., 53-72 or.). Tópicos del Seminario, Puebla. http://www.scielo.org.mx/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S1665-12002013000100004&lng=es&nrm=iso-tik berreskuratua

Nietzsche, Friedrich (2007). *Humano, demasiado humano. Segundo volumen, fragmentos póstumos* (161. or.). Madrid, Akal.

Prestel, César (2011ko martxo). *El sensor fluido. La narrativa de una etnografía de laboratorio*. Athenea Digital. <http://atheneadigital.net/article/viewFile/823/548>-tik berreskuratua

Serres, Michel (17-06-2008). *Michel Serres : Horaces, Curiaces et rugby. Regards sur le sport - Michel Serres, philosophe*. [bideo fitxategia]. <http://education.francetv.fr/matiere/philosophie/quatrieme/video/michel-serres-horaces-curiaces-et-rugby-tik> berreskuratua

Steyerl, Hito (2014). *Proxy Politics: Signal and Noise*. e-flux. <http://www.e-flux.com/journal/proxy-politics/>-tik berreskuratua

Steyerl, Hito (2011). *The essay as conformism? Some notes on global image economies*. Hemen: Sven Kramer eta Thomas Tode (2011) *Der Essayfilm. Ästhetik und Aktualität*. Konstanz: UVK.